

# 2016ko gizarte-txostena

## Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin

Laguntzailea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAIALA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES



Asociación de Empresas  
de Inserción del País Vasco  
Gizarteratzeko eta Laneratzeko  
Euskadiko Enpresen Elkarte

Zortzigarren urtez, **Gizateako** bazkide diren enpresen Gizarte-txostena aurkezten dugu, 2016an izan zuten jarduerari buruzko datu pilatuak emanez. Bertan, 2016an bazkide ziren enpresa guztien informazioa biltzen da, 44 hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan 45 enpresa erregistraturik egon arren. Txostenean, enpresei buruz eskainitako informazioa, enpresa-jarduerari eta jarduera ekonomikoari dagokio, baina baita euren xede sozialari ere: lan merkatura sartzeko zailtasun bereziak dituzten eta bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsona langabeei emandako laguntza eta gizarteratze eta laneratzeari, alegia.

2016ko gizarte-txostena



# Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin

Laguntzailea



Asociación de Empresas  
de Inserción del País Vasco  
Gizarteratzeko eta Laneratzeko  
Euskadiko Enpresen Elkarte

2016ko gizarte-txostena  
Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin

2016ko abendua

Gizatea

Asociación de Empresas de Inserción del País Vasco  
Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea

Venezuela plaza 1, 2. solairua, Ezk.-Ezk. • 48001 Bilbo

Tel.: 94 401 09 59

[gizatea@gizatea.net](mailto:gizatea@gizatea.net)

[www.gizatea.net](http://www.gizatea.net)

Twitter: @Gizatea

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Amayadigital. S.L.U.

Koordinazioa, idazketa eta itzulpena: Amaia Naveda Sáenz de Ugarte.



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0

Dokumentu honek Creative Commons erakundearen lizentzia dauka. Obra hau libre kopiatzeko, banatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarrituta beste obra bat egiten bada, hau bezalako lizentzia eskuratuta baino ezin izango da banatu.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.eu>



# Aurkibidea

Aurkezpena .....	5
Nortzuk gara .....	8
Informazio soziala .....	10
Informazio ekonomikoa .....	17
Itzulkin ekonomikoa .....	23



# Aurkezpena



Jarraian, **Gizatearekin** elkartutako gizarteratze-arloko enpresen memoria soziala aurkezten dugu.

Dokumentu honek tresna egokia izan nahi du gizarteari eta instituzio publiko nahiz pribatuei gizarteratze-arloko enpresek egiten duten lanaren berri emateko, haren bi arloetan, alegia, enpresan eta arlo sozialean.

Erantsitako gizarteratze-arloko 44 enpresen memoria sozialak erakunde bakoitzaren balantze sozialak ditu oinarrian, eta hemen 2016ko ekitaldian izandako emaitza nagusiak jaso ditugu.

Emaitzak nabarmen okertu ziren krisialdiaren urterik latzenetan, baina hobekuntza argia azaltzen dute 2016an, enpresen adierazle ekonomiko eta sozial nagusietan. Horietako batzuk jarraian laburbilduko ditugu.

- **Gizarteratzeko postuen hazkundera** etenda geratu zen krisialdian eta 2014an jo zuen behea, baina 2015ean suspertzen hasi zen, eta 2016an egonkortu egin da, **%8,5eko gehikuntza** izan baitu 2015. urtearekin erkatuta.
- **Sektoreak sortutako enplegua** ere eten egin zen 2014an, baina 2015ean eta 2016an hazi egin da, batez ere gizarteratzeko prozesuan dauden pertsonen enplegua: 2015ean baino bi enpresa gutxiago dago 2016an (hain zuzen, 44, lehengo 46 enpresen orde); **Gizatearekin** elkartutako enpresek **1.123 pertsonari** ematen diote enplegua, eta horietatik **665 gizarteratzeko prozesuan** daude. Hortaz, krisialdi aurreko mailetara itzuli gara, hain zuzen, 2011ko mailetara. Urte horretan sortu zen enplegu gehien, eta 671 pertsona izan ziren gizarteratzeko prozesuetan.
- EAEko gizarteratze-arloko enpresetan prozesua amaitu duten pertsonen **enplegu arrunta lortzeko** joera egonkorra egon da 2014. eta 2015. urteetan, eta gorantz egin du berriz 2016an: **gizarteratze-prozesua bukatu duten langileen %61,48 ohiko lan merkatuan hasi da**; horrek esan nahi du %6ko gehikuntza izan dela 2015. urtearekin alderatuta, eta ia %20ko gehikuntza 2012. urtearekin erkatuta, urte horretan izan baitziren emaitzarik txarrenak laneratzeko arloan.

- Hortaz, gizarteratze-arloko enpresak **tresna eraginkorra** dira **baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak lan-arloan aktibatze**ko. Ildo horretan, bistakoa da azken urteetan gizarteratze-arloko euskal enpresak ohartu direla xede duten kolektiboen artean nabarmen egin duela gora Diru-sarrerren Bermerako Errenta jasotzen duten pertsonen kopuruak. Hala, 2009. urtetik hona, Diru-sarrerren Bermerako Errenta jasotzen zuten gizarteratze-arloko langileen kopuruak gora egin du etengabe oso modu esanguratsuan, 2009an 226 pertsona baitziren eta 2016an, berriz, 490. Azken urte horretan, gizarteratze-arloko pertsonen %74k jasotzen zuen lehendik Diru-sarrerren Bermerako Errenta. **Gizateak gizarteratzeko enpresek duten prebentzioko zeregina** berreskuratu nahi du, baztertuta dauden edo horrela geratzeko arriskuan dauden pertsonen enplegarritasuna eta lan-merkatuan sartzeko aukerak hobetzeko, laguntzen hartzaila izan zein ez izan.
- **Gizatearekin** elkartutako **gizarteratze-arloko enpresen sarrera-iturri nagusia salmentak dira**, eta azken urteetan aski egonkor izan dira, sarrerren kopuru osoarekin erkatuta: 2016ko datuen arabera, guztizko sarrerak 29.808.770,71 euro izan dira, eta horietatik %75 produktuen eta zerbitzuen salmentaren fakturaziotik atera da. Nabarmendu nahi dugu salmenta guztien **%78 bezero pribatuetatik etorri dela**, eta **%22, berriz, sektore publikotik**. Hortaz, enpresa horiek merkatu pribatuan aritzen dira, eta administrazio publikoan lortzen dituzten kontratazioak oso gutxi dira oraindik, eta gehienetan ez dute klausula sozialik. Laguntzei dagokienez, sarrera guztien %25 dira. Horretatik %80 gizarteratzeko enpresentzako berariazko laguntzak dira, eta nabaria da 2016an %7ko gehikuntza izan dela laguntza pribatuetan.

Datu horien arabera, argi ikusten da krisialditik ateratzen ari garela, baina **Gizatearekin** elkartutako enpresek harago joan nahi dute. Hargatik, 2016an eta 2017an, hausnarketa sakona egin dute, eta zenbait erronka eta ildo estrategiko zehaztu dituzte, gizarteratze-arloko euskal enpresek aurrera egin dezaten, bai eta **Gizateak** ere, enpresa-elkartea den aldetik, hain zuzen, horixe baitu xede: haren enpresen hobekuntza sustatzea, eta maila instituzionalean eta sozialean hitz egiteko kuota handiagoak eta hobeak lortzea. Hala, **Gizatearekin** elkartuta dauden gizarteratze-arloko euskal enpresek hau egin daitekeela uste dute:

- Hiru urteko epean (2020), beren enpresetan gizarteratzeko prozesuan dauden pertsonen kopuru hirukoiztea.
- Pertsona horietatik %80k emaitza onak lortzea haientzat, enpleguko politiken esparruan ebaluatzeko.

- Gizarteratze-arloko enpresak Euskadiko eskualde guztietan egotea.
- Diseinu eta doikuntza egokia eta aintzatetsia izatea gizarte eta laneko inklusio-prozeduretan garrantzitsuak diren agenteen eta tresnen artean, enpleguko eta inklusioko erronkek gure gizartean duten garrantziari eta konplexutasunari dagokien eran.

Gizarteratze-arloko euskal enpresek erronka horiei egin beharko diete aurre, sormena, berrikuntza, ilusioa eta elkarlana erabiliz, sortu zirenean egin zuten moduan. Era berean, ibilbidean barrena erakutsi duten jarraitutasuna azaldu beharko dute, merezi duten eta gaur egun duten onespren juridikoa eta politikoa aldarrikatzeko eta eskuratzeko.

# Nortzuk gara

**Gizateaz** eta gizarteratze-arloan dituen enpresez ari garenean, honetaz ari gara:


Parte-hartzea	2016
<b>Gizateako</b> bazkide diren enpresak	44
Gizarte-txostenean parte hartu duten enpresa kopurua	44 (%100)

Datu soziolaboralak	2016
Langile kopurua - laneratze eta gizarteratze prozesuan eta prozesutik at-	1.123
Laneratze langileak	665
Lansaiosoko lanpostuak -laneratze prozesuan eta prozesutik at-	687
Lansaiosoko laneratze lanpostuak	423
Ibilbidea amaitzean, lan-merkatuan sartzen diren pertsonen ehunekoa	%61


Datu ekonomikoak (€)	2016
Sarrerak, guztira	29.743.173,08 €
Fakturazioa, guztira	20.810.494,41 €
Ustiapen diru-sarreretatik, diru-laguntza publikoen ehunekoa	%21
Langileen kostuak	15.392.750,09 €
Sortutako Balio Erantsi Gordina	17.385.286,50 €

Administrazio publikoei itzulkin ekonomikoa (€)	2016
Herri administrazioei itzulitakoa, gizarte segurantzaren BEZ, SZ, PFEZ eta bestelako bitartez	3.290.766,67 €
Herri administrazioei itzulitakoa, gizarte segurantzaren BEZ, SZ, PFEZ eta bestelako bitartez, laneratze lanpostu bakoitzeko	7.771,87 €


## Banaketa geografikoa



## Forma juridikoa



## Esparru geografikoa




# Informazio soziala


Gizarteratze-arloko enpresak ekimen sozioekonomikoak dira, enpresa-jarduera zehatz baten bidez gizarteratzeko bektore bilakatzen dute enplegua, eta gizartean parte hartzeko modu bat dira gizartean baztertuta dauden edo horrela geratzeko arriskuan dauden pertsonentzat.

Langileak 2016		Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Emakumeak	Laneratze prozesukoak	324	75	193	56
	Laneratze prozesutik kanpokoak	220	44	136	40
Gizonak	Laneratze prozesukoak	341	50	253	38
	Laneratze prozesutik kanpokoak	238	19	193	26
<b>Guztira</b>		<b>1.123</b>	<b>188</b>	<b>775</b>	<b>160</b>

## Langileen bilakaera




## Pertsonak sexuaren arabera



**324** laneratze arloko emakumeak (**%60**)

## Gizarteratze-prozesuan dauden eta DSBE jasotzen duten pertsonak



**490** pertsonak jaso zuten Diru-sarreraren Bermerako Errenta, gizarteratzeko prozesuarekin hasi aurretik.

## Lanpostuen egitura<sup>1</sup>

Laneratze enpresa	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Laneratze langileak	211	212	423
Zuzendaritza / Gerentzia	16	8	24
Laguntzeko langile teknikoak	10	16	26
Ekoizpeneko langile teknikoak	98	63	161
Beste funtzio batzuk	22	31	53
<b>Guztira</b>	<b>357</b>	<b>330</b>	<b>687</b>

Lansaioko osoko **687** lanpostu

**423** laneratze lanpostu


## Erakunde sustatzaileak kontratatutako langileak

Erakunde sustatzailea	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Zuzendaritza / Gerentzia	12	8	20
Laguntzeko langile teknikoak	17	21	38
Ekoizpeneko langile teknikoak	4	1	5
Beste funtzio batzuk	1	9	10
<b>Guztira</b>	<b>34</b>	<b>39</b>	<b>73</b>

Gizarteratze-erari laguntzarako  
**38** lanpostu tekniko

<sup>1</sup> Gizarteratze-erlako postua eta pertsona bereizten ditugu: gizarteratzeko postuak edo plazak urteko lanaldi osoa dakar berekin; gizarteratze-erlako pertsona, berriz, lanaldi osoko postu batean aritu daiteke, edo arduraldi partziala izan, bestela.


## Laneratze prozesuan dauden langileen lanaldia




Gizarteratze-arloko pertsonen **%63**k lanaldi osoa du

Lanaldi partzialen **%62** emakumeek betetzen dute

## Lanpostuen bilakaera



## Laneratze langileen kontratu motak



Egindako kontratuen **%97**, 44/2007 Legean aurreikusitako kontratu espezifikopean<sup>2</sup>


## Laneratze langileen egoera

Laneratze prozesuan dauden pertsonen buruzko hainbat datu	2013		2014		2015		2016	
	Zk	%	Zk	%	Zk	%	Zk	%
Laneratze prozesuarekin jarraitu zutenak	454	70	380	67	440	69	481	72
Amaitu aurretik, laneratze prozesua bertan behera utzi zutenak	6	1	21	4	15	2	22	3
Laneratze kontratua amaitu zutenak	40	6	37	6	57	9	40	6
Laneratze prozesua amaitu zutenak	148	23	132	23	124	19	122	18
<b>Guztira</b>	<b>648</b>	<b>100</b>	<b>570</b>	<b>100</b>	<b>636</b>	<b>100</b>	<b>665</b>	<b>100</b>

<sup>2</sup> 44/007 Legea, abenduaren 13koa, gizarteratze-arloko enpresen erregimena arautzen duena.


## Laneratzea

	2013		2014		2015		2016	
	Zk	%	Zk	%	Zk	%	Zk	%
Merkatuan, besteren kontura	61	41	50	38	60	48	53	43
Merkatuan, bere kontura	7	5	6	5	5	4	6	5
Laneratze enpresan	7	5	12	9	3	2	16	13
Langabezian	73	49	64	48	56	45	47	39
<b>Guztira</b>	<b>148</b>	<b>100</b>	<b>132</b>	<b>100</b>	<b>124</b>	<b>100</b>	<b>122</b>	<b>100</b>




Laneratze arloko pertsonen **%61**  
lan merkatura sartu dira mercado laboral

## Laneratzearen bilakaera




## Enplegu motaren bilakaera




# Informazio ekonomikoa

Lan-munduan txertatzeko enpresek jarduera ekonomikoa sortzen dute gure erkidegoan, pertsonekin eta ingurunearekin konpromisoa hartuta, eta ondasunak eta zerbitzuak kontratatzean eta erostean irizpide etikoak, arduratsuak eta solidarioak sustatuta.


## Jarduera ekonomikoak (%)



## Jarduera sektoreak



## Diru-sarrera iturrien bilakaera (milioi €)



## Diru-sarrera iturriak




Enpresen batez besteko fakturazioa

**472.965,78 €**

Lanpostuko batezbesteko fakturazioa

**30.261,45 €**


## Bezero-zorria



**20.810.494,41 €**  
fakturatuta

**%78**  
bezero pribatuak

## Diru-laguntza motak




## Diru-laguntza moten bilakaera (€)

Diru-laguntzak	2013	2014	2015	2016
Laneratze enplegua	5.060.023,41	4.069.835,61	4.991.660,45	4.639.908,42
Ekoizpen teknikariak	700.694,30	419.861,66	368.167,00	420.334,20
Laguntza teknikariak	374.116,38	346.890,70	298.329,05	354.362,55
Inbertsioak	589.420,00	316.553,56	162.715,74	149.208,30
Laguntza teknikoak	10.458,00	0,00	0,00	802,86
Beste kontzeptu batzuk	114.794,46	49.108,21	29.490,04	50.447,92
<b>GLEi emandako laguntzak, guztira</b>	<b>6.849.506,55</b>	<b>5.202.249,74</b>	<b>5.850.362,28</b>	<b>5.615.064,25</b>
Bestelako diru-laguntza publikoak	1.118.917,62	770.844,96	918.548,70	618.111,47
Diru-laguntza pribatuak	275.909,35	287.892,23	188.026,34	781.949,27
<b>Diru-laguntzak, guztira</b>	<b>8.244.333,52</b>	<b>6.260.986,93</b>	<b>6.956.937,32</b>	<b>7.015.124,99</b>

Diru-laguntza publikoen %80  
GE-entzat dira berariaz

## Emitza ekonomikoen bilakaera



## Azterketa ekonomikoa (€)

Emitzen kontua	2013	2014	2015	2016
Ustiapeneko sarrerak	27.993.425,14	24.883.760,30	28.082.086,51	29.808.770,71
Lehengaien eta salgaien kontsumoa	-4.836.133,95	-4.701.666,15	-5.637.151,48	-4.953.141,22
Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	-6.115.297,24	-5.833.459,15	-6.524.343,73	-7.527.781,82
<b>Balio Erantsi Gordina</b>	<b>17.041.993,95</b>	<b>14.348.635,00</b>	<b>15.920.591,30</b>	<b>17.327.847,67</b>
Ezohiko emaitzak	40.173,47	10.906,16	30.106,22	57.438,83
<b>Sortutako Balio Erantsi Gordina</b>	<b>17.082.167,42</b>	<b>14.359.541,16</b>	<b>15.950.697,52</b>	<b>17.385.286,50</b>

## Bestelako adierazle ekonomikokoak

	2013	2014	2015	2016
<b>Sortutako Balio Erantsi Gordina</b>	<b>17.082.167,42</b>	<b>14.359.541,16</b>	<b>15.950.697,52</b>	<b>17.385.286,50</b>
Pertsonal gastuak	-15.031.776,23	-12.821.347,34	-14.557.091,59	-15.392.750,09
Finantza emaitzak	-172.471,34	-147.803,79	-136.764,39	-134.249,48
Amortizazioak	-1.825.607,89	-1.433.002,45	-1.202.459,96	-1.176.994,59
<b>Zerga Aurreko Mozkina (ZAM)</b>	<b>52.311,96</b>	<b>-42.612,42</b>	<b>54.381,58</b>	<b>681.292,34</b>
Amortizazioak	-1.825.607,89	-1.433.002,45	-1.202.459,96	-1.176.994,59
<b>Kutxa Fluxua edo Cash Flow</b>	<b>1.877.919,85</b>	<b>1.390.390,03</b>	<b>1.256.841,54</b>	<b>1.858.286,93</b>


Diru-sarrerak guztira  
**29.808.770,71 €**

**17.385.286,50 €** ko BEG

# Itzulkin ekonomikoa

Gizarteratze eta laneratze enpresek komunitateari egiten dioten oinarritzko ekarpena bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea da. Horretarako, laguntza publiko bereziak jasotzen dituzte. Inbertsio publiko honek, gizarteari itzulkin bat sorrarazten dio, bai ekonomikoki zein justizia eta kohesio sozialari dagokionez.

Zerga bidez administrazio publikoei egindako itzulkina (€)




## GLEen ekarpena, laneratze prozesuan dauden pertsonak kontratatzeagatik<sup>3</sup>

	Zenbatekoa lanpostuko/urte (€)	Laneratze lanpostu kopurua	AAPPei egindako diru-sarrerak (€)
Enpresaren Gizarte Segurantza	4.689,10		1.985.458,72
Langilearen Gizarte Segurantza	1.171,74		496.136,74
PFEZ	773,34	<b>423</b>	327.446,21
BEZ	841,50		356.307,55
Sozietateen g/zerga	147,85		62.601,63
Bestelako zergak	148,35		62.815,83
<b>Guztira</b>	<b>7.771,87</b>		<b>3.290.766,67</b>

Laneratze lanpostu baten itzulkina **7.771,87 €**


## Laneratze lanpostuaren benetako kostua (€)




Laneratze lanpostu baten kostu erreala **5.489,34 €**

<sup>3</sup> Kalkulia egiteko, urtean, 15.529,88 € gordin kobratzen dituen laneratze prozesuko langile baten soldata hartu da oinarri.

## DBE jasotzen duen pertsona baten kostua<sup>4</sup> (€)



## Administrazioarentzat kostua (€)



**6.640,94 €**-ko aurrezkia laneratze lanpostu bakoitzeko

<sup>4</sup> Kalkulu honetan hurrengo bi faktoreak hartu dira aintzat:

1. Pertsonak Diru-sarrera Bermatzeko Errenta gisa (batez beste) jasotzen duena.
2. Pertsonak jasotzen dituen beste laguntza sozial batzuk, ikerketa ezberdinetatik ateratakoak.

Razón social	Sector de actividad	☎	Territorio
ALKAR BIZIZ, S.L.	Etkez-etzeko laguntza, menpekotasundun pertsonen laguntza zerbitzuak	944 155 723	Bizkaia
AMAYADIGITAL, S.L.U.	Papertegia, inprimategia eta arte grafikoak	945 265 480	Araba
AUKERLAN CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L. <sup>5</sup>	Eraikuntza eta berrikuntzak	688 883 282	Bizkaia
BERAIKI99, S.L.	Eraikuntza eta berrikuntzak	945 108 130	Araba
BEREZI 99 GARBIKETAK-LOREZAINZA, S.L.	Mantentzea eta zerbitzu osagarriak komunitate, enpresa eta lokal komertzialei	945 108 130	Araba
BERJANTZI, S.COOP.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	944 523 374	Araba
BERZIKLATU, S.L.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	946 640 082	Bizkaia
BERZIOARSO, S.L. <sup>5</sup>	Arropa, jostailu, altzari eta 2. eskuko gailuen bilketa eta merkaturatzea	943 344 333	Gipuzkoa
BIDEBARRI ENPLEGU ZENTRUA, S.L.	Elikagaien banaketa	943 716 479	Gipuzkoa
EKOIZAN, S.L.	Elikagai ekologikoen banaketa	944 027 841	Bizkaia
ELKAR PROTEO, S.COOP. I.S. <sup>5</sup>	Garbiketa	944 168 896	Bizkaia
EMAÚS BIDASOA, S.L.U.	Arropa, jostailu, altzari eta 2. eskuko gailuen bilketa eta merkaturatzea	902 455 855	Gipuzkoa
EMAÚS COMERCIO JUSTO, S.L.U.	Elikagaiak eta produktu ekologikoak	943 367 534	Gipuzkoa
EMAÚS DENDAK, S.L.U.	Arropa, jostailu, altzari eta 2. eskuko gailuen bilketa eta merkaturatzea	944 168 896	Bizkaia
EMAÚS MOVILIDAD SOSTENIBLE, S.L.	Garraio jasangarria	944 168 896	Bizkaia
EMAÚS NEKAZARITZA, S.L.U.	Elikagaiak eta produktu ekologikoak	944 168 896	Bizkaia
EMAÚS SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES, S.L.U.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena. Etxe-aldaketa garraioa. Arropa, jostailu, altzari eta 2. eskuko gailuen bilketa eta merkaturatzea	944 168 896	Bizkaia
EUSKAL POSTALRED, S.L.	Mezularitza, garraioa eta paketeria	944 128 843	Bizkaia
EUSKARRI, KOOP. E. de Iniciativa Social	Lagun-egite soziala eta laguntza-zerbitzuak menpekoak diren pertsonentzat	944 792 386	Bizkaia
GARBINGURU SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES, S.L.U.	Lorezaintza, baratzegintza, ingurumeneko zerbitzuak eta basoko lanak	945 120 109	Araba

<sup>5</sup> 2017an itxita.

Razón social	Sector de actividad	☎	Territorio
GOILURRA, S.L.	Elikagaien banaketa. Etxez-etxeko laguntza, menpekotasundun pertsoneri laguntza zerbitzuak	944 780 541	Bizkaia
HAZLAN IRUN, S.L.	Etxez-etxeko laguntza, menpekotasundun pertsoneri laguntza zerbitzuak. Josteta tailerra	943 610 610	Gipuzkoa
IKATZBIZI, S.L.	Etxez-etxeko laguntza, menpekotasundun pertsoneri laguntza zerbitzuak	945 244 226	Araba
ITURRITEK, S.L.	Eraikuntza eta berrikuntzak	944 700 704	Bizkaia
IZARZA, S.L.	Ostalaritza	944 538 273	Bizkaia
JANTZIPREST, S.L.U.	Garbitze- eta tindatze-lanak	685 753 740	Bizkaia
KEIMA ANIMAZIOA, S.L.U.	Aisialdi jarduerak	944 792 255	Bizkaia
KIDE EMAUS, S.L.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	945 250 345	Araba
KUPELAN KENTUCKY, S.COOP.	Ostalaritza	946 071 962	Bizkaia
LAIATZEN, S.L.	Eraikuntza eta berrikuntzak	944 700 704	Gipuzkoa
LAIENE JATETXEA, S.L.	Ostalaritza	944 237 089	Bizkaia
LAPIKO CATERING, S.L.	Ostalaritza	688 679 545	Bizkaia
LIBURKI, S.L.L.	Papertegia, inprimategia eta arte grafikoak	944 462 279	Bizkaia
LOGICART, S.COOP.	Papergintza, kopia-denda, bulegoko materiala	944 760 969	Bizkaia
OARSOTEK, S.L.	Industriarako laguntza-zerbitzuak	943 494 129	Gipuzkoa
PORMU KOOP. ELK. TXIKIA	Mekanika	664 267 778	Bizkaia
REKAGARBI, S.L.U.E.I.	Garbiketa	944 802 436	Bizkaia
REZIKLETA, S. COOP.I.S.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena.	944 523 374	Bizkaia
SERVICIOS DE HOSTELERÍA PEÑASCAL, S.L.	Ostalaritza	944 700 704	Bizkaia
SOKAIRE SERVICIOS DE LIMPIEZA, S.L.U.	Garbiketa	944 167 904	Bizkaia
SUSPERTU, S.L.	Ostalaritza eta turismoa	944 008 060	Bizkaia
TINKO GARBIKETAK, S.L.	Garbiketa	945 235 574	Araba
URBEGI INSERCIÓN, S.L.	Industria-zerbitzu osagarriak	946 801 934	Bizkaia
ZABALTEGI JUDIMENDI, S.L.U.	Ostalaritza	945 251 840	Araba
ZURTEK, S.L.	Eraikuntza eta berrikuntzak	944 700 704	Bizkaia

